

Nafarkaria

Nafarroako Gehigarri Berezia / Ostirala, 1992ko otsailak 28

Zubian Barne



BINGEN AMADOZ

Geroz eta gehiago ari gara xenofobia hitza aditzen, edo berriz ere aditzen esan beharko genuke. Arrazakeria ez da tamalez, arestian asmaturiko ezer. Europa eta Europaren menpe egondako herrien historiek hainbat pasadizo ditu lotsaz eta nekez konta daitezkenak.

Arrazakeriaren adierazpenak agerian jarri diren aldiro, historiako gelditu zaizkigu han hemenka, gertaera odoltsu bezain negargarriak. Arraza, kultura, ideoloji edo erlijio bati atxekimendua aitortu eta nahiko arrazoi izan dituzte garai guztietako inkisidore eta murumotzek jende hori kolpatu, espetxeratu, atzerrira bultzatu eta bide bazterretan tiroz josirik uzteko.

Sarri askotan ere nahastu egin da ezberdintasunaren defentsa eta arrazakeria, Espainiar zenbaiten ahotsean entzun izan ditugu nahasketa horiek behin baino gehiagotan gutaz mintzatzean.

Euskaldunek besteak baino gehiago direla uste dute, esaten zuten Ebrotik beharako horiek. Ez dut esanen horrelakorik gure artean etzegoenik eta ez dagoenik, baina nire uestez gehienetan gurea izan da esatea: gu ez gara ez gehiago ezta gutxiago ere besteak baino, baina bai ezberdinak edo behintzat kultur ezberdineko jabeak. Eta hori ez da arrazista izatea. Hori bakoitzak bere nortasuna defendatzea da. Nazio batek bere izate bereziari eustea ez da zergaitik txarra izan behar. Aniztasunak egiten du aberatsa gure mundua.

Kultura, ohitura, eta hizkuntza ere haiekin bat eginik nahiko gintuzketenek leporatu izan digute euskaldunoi arrazakeria. Behin baino gehiagotan esan digute belarrira edo ozenki: hizkuntza bakar bat izan beharko luke munduak. Horrela denok elkarri ulertuko genioke problemarik gabe. Baina modu berean ere denok txuri, elizkoi, langile, zintzo, altu, eder eta hezkuntz onekoak izan beharko ginatke agian. Ba al da inor baldintza guztiak betetzen dituena? Eta baten bat balego zer egin besteekin?

Herri baten nortasunak ordea, begirunea merezi du nere uestez, eta herri berdinari nortasuna ukatzen dionak berriz, arrazakeria besterik ez du erakusten.

Nafar bertsolariak plazara

Martxoak 8, igandean, emanen zaio hasiera Donazaharren (Nafarroa Beherea) Nafarroako XXI Bertsolari Txapelketari. Hiru saiotan burutu beharrekoa da —aipatuaz gain Luzaide eta Sunbillan— eta finala Iruñeko Gaiarre Antzokian izanen da apirilaren 5ean. Hogei-talau bertsolari guztira, horietariko bik hartuko dute parte lehendabiziz horrelako txapelketa batean, Estitxu Arozena eta Xabier Silveira gazteek, hain zuzen ere. Txapelketa honekin burutuko da bertsolari elkartearendako garrantzitsu oso izan den urtea, bai antolatutako ekitaldiak direla eta —Iruñeko Bertso Astea, Nafarroako bertsolari-tzari buruzko liburua, bertso eskola berriak, saio franko— nola izandako oihartzunagatik.



Barnean

IHAUTERIAK



Asteburu honetan herri guztietan mozorroak errege / VII

SARALEGI



Leitzako mutikotea Perurenaren ildoren atzetik / VIII

Gure Aukerak

ANTZERKIA

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak gaur ostirala Labrit frontonean izanen dira. Bi emanaldi eskeiniko dituzte bata arratsaldeko bost t'erdietan eta bigarrena zazpi t'erdietan. Sarrerak 100 pezetan salduko dira frontonean bertan, goizeko hamaiketatik ordubata t'erdia arte eta arratsaldeko lauetatik sei t'erdia arte.

MUSIKA

Refugiados rock taldea Iruñeko Ilargi tabernan joko dute gaur arratsaldeko zortzietatik aurrera.

Deskarga, MPB eta Caspa de Ratas taldeek kontzertu bat eskeiniko dute gaur Iruñeko Lanbide Eskolan. Ordua: eguerditik aurrera.

Hertzainak rock taldea gaur guerditik aurrera kontzertu bat eskeiniko du Tafallako dantzalekuan. Euskal Herriko talderik garrantzitsuenetako ikusteko parada ederra.

Piperrak taldea gaur guerditik aurrera Zangozako Batasuna peñaren egoitzan arituko da.

ZINEMA

'Lau urtarok mendian' izenburua duen diapositiba emanaldia eskeiniko dute gau arratsaldeko zortzietan Jarauta 78an Nafar Kiroi Taldeak duen aretoan.

San Isidoro de Leon basilikari buruzko bideo emanaldia ikusi ahal izanen da bihar eta etzi Nafarroako Museoa. Emanaldiak eguerdian.

ERRAN DUTE

Alli lehendakariak Nafarroan Arzalluzena egitera jolasten du».

Gabriel Urralburu
PSN-PSOEn buruzagia

«Osasunako jokalarik batzuk ez daude ondo eta hauek motibatuzko modu egokia aurkitu behar da».

Fermin Ezkurra
Osasunako presidentea

«Zergatik ez gaituzte denok epaitzen? Batzuk bakarrik atxilotzea gazteak beldurtzeko egina dagoela argi dago».

KEMeko ordezkari bat

«PSNko idazkari nagusia egin dituen akats politikoen esklabu da».

Bittor Aierdi
Lurraldeko bozeramale nafarra

Lizarrerria barne

Lizarrerria inguruko ibilbide honetan bi Nafarroen arteko mugen ezaugarriak batzen eta bereizten dira. Iparraldeko hezetan eta berdea utzita, garia eta tabakoaren usaina nahasten eta antzematen hasiak dira, eta hor hasten dira lautada zabalak, monumentuak eta hiri zahar eta horiak.

Lizarratik atera eta kilometro gutxitara Iratxe Monastegiarekin egiten du topo bisitariak. Aspaldiko beneditarren monastegia, lurramendiren magalean dago. 958. urtean jadanik ezagutua, duen kokagune berezia dela eta, garrantzi handia hartu zuen urteen poderioz, eta XII mendean erdian, beste monastegi askotako azizien jabe egin zen: Iarteko Santa Maria, Arronizko Santa Maria, Subiza, eta abar...

Aurrerago, Iguzkitzan, aspaldiko gaztelua bisita daiteke, Medraneko Velez familiarena izandakoa. Egurra eta harria nahasten dira bere plantan. Espeleologiarekin interesa izanen gero, berriz, bertako leize famatura joan daiteke, 55 metroko sakonera duena.

Monjardinen, Estebanen gaztelua da azpimagarrietakoa. X mendean kendu zien musulmanei Antso Gar-



cesek, eta, ondoren, erregeak zein apezpikuak aritu ziren lehen horren jabeak egiteko. Nafarroako Erresuma menderatu ondoren, Alba etxeak eskuratu zuen.

Lukinen famatuak dira bertako udalekuak, uda guztietan haur eta gazte franko bertaraino eramaten dituztenak.

Deikastelun Vega del Pozoko markesaren etxea da nabarmenezko modukoa, 1890ean egindakoa. Etxe ederra, inglesa estilokoa. Herriaren gainean, Nievako Ama Birjinaren omenez eraikitako basiliza dago, eta horra heldu baino lehen ikusmira aparta dasta daiteke inguru zabal batekin.

izanen dira eta museoa basilikei buruz ematen ari den zikloaren barne dago.

ERAKUSKETAK

'Euskara Nafarroako gaztelanian' izeneko erakusketa bihar arte

dago zabalik Nafarroako Museoa. Bertan Nafarroan eguneroko erderan erabiltzen diren hitz askoren euskal jatorria antzeman daiteke. Erakusketa Nafarroako Gobernuak antolatuta du.


Enzo Vecino argazkilariaren lanak

daude ikusgai Tafallako erakustokian, martxoaren 1a arte. Argentinarrak bere azken lanak paratuko ditu bertan, eta erakusketa Kultur Patronatuak eta Higuera taldeak da antolatua.

Herri kirolari buruzko erakusketa

ASTEKO PERTSONAIAK

J.I. Lopez Borderias



Herrilan sailburua

Nafarroako Herrilan kontseilaria Naipagai izan da egunotan Fustiñanako Alkatetzaren inguruan gertatuakoa dela eta. Borderiasek presionatu omen zituen bertako bi zinegotzi Josefa Galindo alkatesa sozialista kargutik kentzeko. Kontseilariak esan omen zien bi independentei alkatesaren kontrako mozioa sartu ezean, herriak ez zuela dirulaguntzarik izanen. Borderiasek berak ukatu egin zuen ondoren presiorik izan zenik, baina bi zinegotziekin bildu zela onartu zuen. «Duela bost hilabete bildu nintzen bi zinegotziekin —Antonio Viles eta Fermin Marchite— baina ez dut gogoratzen zertaz aritu ginen, lagunaren arteko bilera izan bait zen» esan zuen Borderiasek. Josefa Galindo lehengo alkateak PSNren onspena jaso zuen berria ezagutu eta gero.

Pedro Mari Zabalza



Osasunako entrenatzailea

Pedro Mari Zabalza Osasunako entrenatzaileak aspaldian uxatuta omen zeuden presioak jaso ditu aste honetan, gorritxoaren joko eskasa eta egoera kezagarria dela eta. Zabalzak urte dexente darama Osasunaren eta lehen mailako entrenatzaile biteranoena da, urte guzti hauetan ez bait du arazo handirik izan taldean. Hala ere, eta taldea Europara berriro eraman zuen urtean, joko franko kaskartu zen, eta zaletuek ere kritika gogorak egin zitoten taldeari, Logroñesen aurka galdu ondoren. Ezkurrak, baina, konfidantza eskaini zion Pedro Mariri, eta hau lur jota agertu bazen ere, taldea bide zuzenean jartzeko gogoaz ez zitzaizela falta adierazi zuen. Atotxan Realaren aruka jokatu duen partidua erabakiorra izanen da gorritxoak eta Zabalza berarendako.

Jose Joaquin Arazuri



Historilaria

Jose Joaquin Arazuri jaunari Iruñeko Udalak omenaldia eginen dio bihar bere bizitza osoan hiriaren historian egindako lanagatik esker onak emateko. Arazuri Pediatra da lanbidez, historilari afizioz, eta berrogei urte luze eman du Iruñeko argazki zaharrak han eta hemen bilduz, guztira 35.000 inguru lortu arte. Partikular batek izanen duen bildumarik garrantzitsuenak, dudarik gabe. Bilduma zabal horretan, auzo eta kale guztietako irudiak ditu gordeak Arazurik, eta horiei esker, hiriko zenbait pasarte historikoren berri izan du. Horrela, eta Sanferminei buruz bi liburu dagoeneko argitaratuta, hirugarrena prestatzen ari da egun, eta zenbait ekitaldik duela bi mende bezala irauten badute ere, beste askok izugarritzko aldaketa izan dutela gogoratu du.

dago ikusgai Zangozako Kultur Aretoan. Erakusketa Carmelo Alcalá iruñeseak egindakoa da, eta Nafarroa osoan zehar egiten ari den ibilbidearen barruan herri honi dagokion martxoaren 22a arte.

Jose Maria Guerrero Soriako pintorearen lanak martxoak 15an Iruñeko Cafe-Galeria Lacavan dagoen ikusgai. Nafarroan ezezagunak izan arren Sorian eta Madrilan askotan erakutsi ditu bere mihiseak, baita arakasta lortu ere.

MINTZALDIAK

Ijitoen gaur egungo egoera azalduko dute Madrilako Presencia Gitana elkarteak gaur arratsaldeko zazpi t'erdietan Hizkuntz Eskolako Caldereria kalean duen aretoan. Mintzaldiaren aurkezlea Iruñeko Julia Gerra poeta izanen da. Nafarroako SOS-Arrazismo taldeak antolatuta duen zikloari amaiera emanen dio mintzaldi honek.

Soziolingustika ikastaroa hasiko da bihar Leitza Euskara Zerbitzuaren antolaturik. Bihar Sabino Cuadrón Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiko letradua eta Xabier Isasi Zorroagako Psikologia Fakultateko irakaslea euskararen egoera legala aztertuko dute. Martxoak 4, Goizuetan 'Adorez eta atseginez' mintegiak 'Un futuro para nuestro pasado' Sanchez Carrion 'Txepetxen' liburua aurkeztuko dute eta euskal talde eragileak mintzagai izanen dira. Martxoaren 6an Sabino Cuadrón, Xabier Aizpurua eta Pablo Sargadoy euskararen egoera soziala aztertuko dute.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9.00etatik 10.00etara... Xinguli Mangulak haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara. Informazio Saioa Baztan, Malarreka eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesako egunero.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.5

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... Gautxori irratsaio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 89.5

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Soziolinguistika ikastaroa Leitzan

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Leitzako Udalaren euskara zerbitzuak antolatuta hau da Nafarroan gisa honetako egiten den bigarren ikastaroa, joan den udazkenean Sakanan egin zenaren ondotik. Egin ere, soziolinguistika ikastaro franko egiten dira, baina bereziki teknikari eta adituendako. Antolatzaileek azpimarratzen dutenez, «teoria hutsatik atera nahi dugu, herritarrei bereziki zabaltzeko».

Otsailak 29 hasi eta apirilak 15 arte, hitzaldiak zein ikastaroen bidez, hizkuntzaren normalizaziorako eman beharreko pausuak izango dute partaideek aztergai, «horretarako egin behar den bidea behar bezala eta denbora alferrik ez galtzeko».

Antolatzaileek hiru arlotan ibilitako jendeari begira osatu dute bereziki ikastaroa, eta irakasleak, udalako funtzionario eta zinegotziak, eta euskararen inguruan herrietan ibiltzen direnak dira aukeratuak. Talde heterogeneoa oso, baina uz-tarri batekin: euskararekin harremana badute, izan, baina hainbat gaitan jantzi gabe daude. Gai hauek,

euskararen egoera legala eta soziala, J.M. Sanchez Carrion 'Txepetx' filologoaren 'Un futuro para nuestro pasado' teoriaren aurkezpena, soziolinguistika aplikatua, euskal talde eragileak, udal elebakarrak eta hizkuntz politika.

Gaiak interesatuta dauden guztiei daude zuzenduta, antolatzaileek azaltzen dutenez, «nahiz eta aurretik gaiak teknikoegiak iruditu, ikastaroa oso era arrunt eta errezean emanen bait da».

Azken helburua Leitzan eta Goizuetan talde finkoak osatzea litzateke, herrietan euskararen inguruan ibiltzen direnak batuko litzuketenak. Horrekin batera, arlo honetan dabilzanek entzunak dituzten gaien azalpena egin nahi da, Pello Argiñarenak Leitzako euskara zerbitzukoak azaldu duenez. «Denok dakigu zer den elebitasuna, baina ideia abstraktua dugu askotan, ez bait dugu ezagutzen zehatz zenbat mota dauden, eta abar. Diglosiarekin berdin, zer den, non ematen den. Orduan, honen inguruan, praktika eta teoria landuko da».

Hitzaldiak eta ikastaroak izango dira ekitaldian, denak Leitzako esko-

letan eta Goizuetako 'Umore Ona' elkartearen. Horrela, otsailak 29, larunbata, eta martxoak 6, ostirala, 'Euskararen egoera legala' aztertuko dute Sabino Cuadra Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiko letratuak eta Xabier Isasi Zorroagako Psikologia Fakultateko irakasleak. Martxoak 4, asteazkena, eta martxoak 11, asteazkena, Txepetxen teoriaren inguruan sortutako 'Adorez eta atseginez' izeneko mintegia teoria bera azaltzen saiatuko da.


TXEPETX-EN TEORIA AZTERGAI

Txepetxen teoria ez da izango ikastaroan landuko den bakarra, baina toki aukeratua izango du, dudarik gabe. Bere irizpide ezagunenetakoa motibazioa, ezagupena eta erabilpena lotzen dituen teoria da. Motibazioaren bidez, filologoak azaldu duenez, lor daiteke ezagutza eta baita erabilpena ere. Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta motibazio handiagoa. Granadako teorioaren ekarpen artean ere konpaktazioarena nabarmentzen da. Bere ustez, euskararen erabilpenerako euskaldunen arteko elkar ezagutza ezinbestekoa da, eta horretarako toki aproposen garrantzia azpimarratzen du, euskararen inguruan batzeko, beste ideologiak beste.

Leitzako ikastaroan ere hizkuntzen berreskurapenerako dagoen teoriarik sendoenetakoa aztertuko da: J.Fishmanen 'Hizkuntza biziberritzeko teoria', hain zuzen ere. Horren aurkezlea Josean Urdangarin izango da.

Horieta gain, Leitzako euskararen egoerari buruzko azterketa azalduko du Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegik' eta euskal talde eragileek ere izango dute tokia, Arrasateko AED eta Tolosako Galtzaundien presentzia iragarrita bait dago bertan.

Udal elebakarren egoera, udal hizkuntz politika, beste estatutuen hizkuntz politika eta Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Kataluniako hizkuntz politikari buruzko mintzaldiak osatuko dute hitzaldi-ikastaro hauen egitaraua.



Jose Luis Alvarez Enparantza, 'Txillardegik'.

Leitza eta Goizuetan talde finkoak osatzeko ahaleginak

P.U. / IRUNEA

Leitzan antolatutako ikastaroaren helburu nagusiak, antolatzaileek adierazi duten bezala, 'Txepetxen' teorian du oinarri, hau da, herrietan euskaltzaleatasunaren inguruan lanean ari direnak batzea. Teoriaz aparte, zerbait praktikoa lortu nahi dutela eta, martxo eta apirilean zehar, soziolinguistikaren inguruko gai asko era errazean azaldu nahi dituzte, «ikasitakoarekin gero talde edo elkarte finkoren bat osatzeko».

Hala ere, bidea «mantsoa» dela azaldu dute Leitzako Euskara Zerbitzukoek, «lehendabiziz ondorioak atera behar bait dira, egoera aztertzeke. Asmoa ez da hau bukatu eta biharamonean zerbait egitea».

Asmo hauek nola bideratu eta nondik jo da oraingo betebeharrak. Ez dirudi erraza horrelako ekimenak ezer ezertetik sortzeak, sakabanaturik dauden taldeak biltzeko ahaleginak, batzuk arrakastatsua suertatuta ere, mota guztietako emaitzak eman bait dituzte.

Hor daude, esate baterako,

Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak, edota Gipuzkoan eta Bizkaian zehar osatu diren talde franko ere. Talde hauen osaketa berdintsua da: euskaltzaleek elkarte baten inguruan sortutako zerbait, baina emaitzak oso desberdinak izan dira tokiz tokiko. Batzuk, Arrasateko A.E.D. kasu, hitzarmen zabala lortu dute herriko erakunde eta talde askorekin —80 bat—, eta beste batzuek maila apalago batetik hasi dira. Azken finean, helburua euskaldungoa batzea eta talde eraginkorra sortzea da.

Leitzako Euskara Zerbitzukoek badituzte ideiak, baina jendeari eman nahi diote aukera, haiek nahi dutena atera dadin. «Guk gure asmoak baditugu, eta talderen bat aterako balitz, bultzatuko genuke, baina ez dugu jendea behartu nahi. Horra agertuko direnak erabaki beharko dute zer egin nahi duten, eta ez ditugu gauzak azkarregi sortu nahi».

Kaleko erabilera ez da zerbitzua- ren kezka bakarra, irakaskuntzan, lan munduan, «denari begiratu behar zaiolako. Ondoren erabaki beharko dugu nola jokatu».



Jose Maria Sanchez Carrion, 'Txepetx'.

EGITARAUA

HITZALDIK

Euskararen egoera soziala	Sabino Cuadra, Xabier Isasi	otsailak 29	Goizueta
Euskararen egoera soziala	S.Cuadra, X.Aizpurua, P. Sagardo	martxoak 6	Leitza
'Un futuro para nuestro pasado' liburuaren aurkezpena	'Adorez eta atseginez'	martxoak 4 martxoak 11	Goizueta Leitza

IKASTAROAK

Soziolinguistika-kontzeptuak	Juan Carlos Etxegoien	martxoak 13	Leitza
'Un futuro para nuestro pasado' teoriaren sakontzea	'Adorez eta atseginez'	martxoak 18	Leitza
Hizkuntza biziberritzeko J.Fishmanen erudia eta etnolinguistikazko bizitasuna	Josean Urdangarin (HPIN)	martxoak 20 martxoak 24	Leitza Leitza
Euskararen egoera zonaldean eta ikerketa matematikoa	Leitzaldeko Euskara Zerbitzua Txillardegik	martxoak 25	Leitza
Soziolinguistika aplikatua	EKB	martxoak 27	Leitza
Euskal talde eragileak	AED / Galtzaundi	apirilak 1	Leitza
Udal elebakarrak	Aizamazabalgo Udala	apirilak 3	Goizueta
Udal hizkuntz politika	Iñaki Arruti eta Jokin Azkue	apirilak 8	Leitza
Beste estatuen hizkuntz politika	Txillardegik	apirilak 10	Leitza
Eusko Jaurlaritza, Nafar Gobernua eta Kataluniako hizkuntz politikak	administrazioko teknikariak	apirilak 15	Leitza

SOZIOLINGUISTIKA IKASTAROA

NON: LEITZAN

NOIZ: Otsailak 29 - Apirilak 15

Asteazken eta Ostiralean, 19etatik 21ak arte

GAIK: "Euskararen egoera soziala eta legala"
"Un futuro para nuestro pasado"
"Soziolinguistika aplikatua"
"Euskal talde eragileak"
"Udal elebakarrak"
"Hizkuntz politika: udalak, komunitateak, estatutak"

MATRIKULA: 2.000 pta. (Langabetuak dohain)

INFORMAZIOA: (948) 50 44 00 (goizez)

Antolatzailea: Leitzako Udala, Euskara Zerbitzua.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Txapelketaz gain badago lanik Nafarroako bertsolaritzan

Asteazkenean aurkeztu zen Iruñean aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Hogeitalau partaideen artean, aurpegi ezagunak, berri zenbaitzurekin batera, hogeibatgarren txapelaren bila. Hala eta guztiz ere, eta ikusgarriena izanda ere, ez da txapelketa Bertsolarien Elkarteak aurkeztu zuen asmo bakarra, bertso eskolak, udako bertso saioak, eta irakaskuntzan egin lanaren garrantzia nabarmendu bait zuten ordezkariak. Azkenotan egindako lanari esker arrakastatsuak izan diren zenbait ekintzen berri emateaz gain, zabaltzeko dauden oztopoz ere mintzo ziren, eskaera dagoen toki guztietara —berreziki irakaskuntzan— ailegatzea galerazten dieten oztupoak.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Aurtengo txapelketan parte hartuko duten hogeitalau bertsolarien artean, aurpegi ezagunak eta bi gazte berri, Estitxu Arozena eta Xabier Silveira lesakarrak, Urko Atxutegirekin batera belaunaldi berriaren ordezkariak. Hiru txandatan banatuta, puntuazio gehien aterako duten zortziek Iruñeko finalean arituko dira apirilaren 5ean, Gaiarre antzokian.

Eta bertsolariak dagokienez berri handirik ez bada, epaimahaia ere ohizkoa izango da, hau da, Joxe Urroz, Mikel Bujanda, Aingeru Epaltza, Emile Larre, Mixel Itzaina eta Jean Pierre Etxegoin. Lana ere ohizkoa: zortziko handietan eta zortziko txikietan hiruna bertso, puntu emanda bertso bana, lau oinak emanda bertso bana eta gartzelako gaien, bukaera emanda, bertso bat eta gaia emanda, nahi duten neurria eta doinuak, hiru bertso.

Tokiak aukeratzeko ordea, bada nobedaderik, Sunbillak behin baino gehiagotan txapelketaren saioak entzuteko aukera izan badu ere, Luzaide eta Donezaharren ez bait da aspaldian horrelakorik gertatu.

Bertsolari txapelketa, baina, pasa den urtarrilaren 11n Elizondon onartu zen egitasmoaren zati bat baino ez da, garrantzitsuenetakoa, akaso, baina zatia, finean. Izan ere, Bertsolarien Elkarteak aurtengorako prest dituen ekintzak onartu bait zituen bilera hartan.

IAZKO URTEA OPAROA Eugenio Arraizak azaldu zuenez, aurtengorako iaz baino ekitaldi gutxiago antolatu dira, «baina garrantzitsuena ez da asko iragartzea, ongi egitea baizik». Beste urtetan bezala, txapelketaren bertso onenak argitaratuko dira, eta herrietan udan



Doneztebeko Bordatxon izan zen iazko finala, eta aurtengoa Iruñeko Gaiarren jokatu da.

zehar egingo diren bertso saioetarako gutuna bidali zaie udal frankori. «Espero dugu —azaldu zuen Arraizak— berrogei bat saio egiteko eskaerak izango direla». Aurtengo udal bakoitzak hogeita mila pezeta ordaindu beharko du bertso saio bakoitzeko eta Bianako Printzearen dirulaguntzekin osatzen da bertso saio hauen aurrekontua, 1.300.000 pezetakoa.

Irakaskuntza arloan egiten den lanari dagokionez ere ez da berrikuntza handirik espero aurtengorako, eta aurrekontua zertxobait murriztuko dela ere adierazi zuen Arraizak. «Tamalgarria da, zeren eta lan hobea eta antolatuagoa egin beharko bait genuen». Aurtengo 4,6 milioi pezetako aurrekontua da-

go, Hezkuntza Sailaren laguntza duena.

Lontxo Aburuzak, bere aldetik, iaz burututakoaren balantzea egin zuen, «urte oparoaren balantzea» bere hitzetan. Horrela, Etxalekuko omenaldia aipatu zuen, tokiko hiru bertsolariak egindakoa, eta horrelakoekin elkartean jarraitzeko asmoa adierazi zuen elkarrekin idazkariak.

Orobat, iaz egindako udako saioak azaldu zituen Aburuzak, berrogeitik gora elkarrekin berak antolatutakoak, eta beste horrenbeste udalek beraiek bultzatutakoak. Oro har, ehun bat bertso saio burutu ziren Nafarroan, «duela urte gutxi pentsaezina zitekeena». Kalitatearen aldetik ere maila altua aipatu zuen idazkariak.

Aurtengo bertso eskola berriak ere izan ziren aipagai, aurretik zeuden Arantza, Lesaka eta Iruñeko Zaldiko Maldikokoei, Leitza, Sakana eta Iruñean beste bi talde gehitu bait zaizkie.

Baina aipagarriena, Larre, Izeta eta Hernandorenari egindako omenaldiaren aitzakiaz Nafarroako Bertsolari buruzko liburua eta urrian Iruñean egin zen Bertso Astea jo zuen Aburuzak. Bere ustez, liburua bezalako ikerketa lanik ez zen egin ordura arte, «eta funtsezkoa da Nafarroako bertsolariak nondik etorri den, non gauden eta nora goazen ezagutu ahal izateko. Aurrera begira, oinarritzko lana da eta derri gorrezko abiapuntua sakontze lana egin nahi duenarentzat». Bertso Asteari dagokionez, «nahikoa desafio» zela esan zuen Aburuzak eta «bertan eman ziren hitzaldien kalitateaz aparte, jendearen erantzuna bikaina eta arrakastatsua izan zen».

Bertsolari gazteen belaunaldiaren emaitzen zain dago Elkarteak

A.B. / IRUÑEA

Iaz Urko Atxutegi Izuran egindako saioan protagonista izan bazen, aurtengo iaz izango dira lehendabiziz Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Gazteek txapelketan parte hartu ahal izateko lehendabiziko aurrerapausua Bizkaiko txapelketan izan zen, eta komunikabideen eraginak izugarritzko pisua izan du gazteek txapelketetan parte hartzeko orduan, Aburuzak azaldu duenez.

«Txapelketek lehen ez zuten onarpen soziala badute gaur egun, telebista eta komunikabideen esker. Gazteek ikusten dute arrakasta eta parte harte nahi dute horretan».

Horren balorazioa egiterakoan, datorren belaunaldiaz hitzegin zuten

elkartekoek. Arraizaren ustez, aurtengo bertso saioen parte hartzeak ez dauka aparteko garrantzirik «hermendik bost urtetara edo, bertso eskola guzti horietatik askoz gehiago aterako bait dira. Berrikuntza nabarmena ekarriko du horrek».

Elkartetik, baina, ez zaio aparteko garrantzia eman nahi izan gertaerari «salto handirik gabe aurrera egitea izugarritzko ospea ematea baino hobe delako». Aburuzak azaldu duenez, gazteek ematen dutena ikusteko dago oraindik, «eta positiboagoa iruditzen zaigu zer ematen duten zain egotea, oraingo saltoa baloratzea baino».

Orobat, gazteen artean ere bertsolariak arreta eragiten duela esan zuen elkarrekin idazkariak, eta ber-

tso eskolek eman dezakeenaren zain egoteari eritzi zion interesgarriena. «Zaharrek eman lezaketena ikusita dago, batez ere txapelketetan, herrietan eta jaietan giro ederra sortu bait dezakete. Txapelketa, beraiantzat bortsaketa gogorra izaten da». Zaharrentzat ere gazteen interesa ikustea akuilu modukoa izan zitekeela azaldu zuen Aburuzak.

Gazteen ildo beretik eta irakaskuntzan egindako lanean, bai ikasketak nola eskoletan bertsolariak zabaltzea eta irakasteko, Diputazioarekin zegoen kontratua berritzeko asmoa bazuen elkarrekin. Hala ere, beste urtetan bezala segituko dela iragarri zen eta murrizketa txiki bat ere izan lezakeela adierazi zuten elkarrekin.

Azkeneko txapelketak

1979	Lesaka	Txapeldun: Joxemiel Argiñarena Bigarren: Juan Perurena
1980	Lesaka	Txapeldun: Mixel Xalbador Bigarren: Joxemiel Argiñarena
1981	Lesaka	Txapeldun: Jean Pierre Mendiburu Bigarren: Joxemiel Argiñarena
1982	Lesaka	Txapeldun: Joxemiel Argiñarena Bigarren: Jean Pierre Mendiburu
1983	Donibane Garazi	Txapeldun: Txomin Ezponda Bigarren: Jean Pierre Mendiburu
1984	Sunbilla	Txapeldun: Jean Pierre Mendiburu Bigarren: Mixel Xalbador
1985	Leitza	Txapeldun: Mixel Xalbador Bigarren: Txomin Ezponda
1986	Doneztebe	Txapeldun: Joxe Fermin Argiñarena Bigarren: Ernest Alkhat
1987	Bera	Txapeldun: Ernest Alkhat Bigarren: Txomin Ezponda
1988	Iruñea	Txapeldun: Mixel Xalbador Bigarren: Manolo Arozena
1989	Baigorri	Txapeldun: Ernest Alkhat Bigarren: Manolo Arozena
1990	Goizueta	Talde Txapelduna: Manolo Arozena Eusebio Fagoaga Antonio Olano J.F. Argiñarena
1991	Doneztebe	Txapeldun: Manolo Arozena Bigarren: Jean Pierre Mendiburu

Nafarroako gazteriaren Kontseiluak 1987az geroztik harremanak izan ditu Euskal Autonomia Elkartekoarekin. Joan den asteburuan biek federazioan bat egiteko hartutako erabakiak bazuen, beraz, aurretik bidea erraztua. Bi erakundeek elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten iaz, eta orain Euskal Herriko Gazteriaren Kontseilua osatu dute Garesen. Kontseiluko lehendakari Jaime Iribarren izendatu zuten eta izan dugu aukera berarekin hitzegiteko aukera.

Euskal Herriko Gazteriaren kontseilua osatu zen Garesen

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Nafarroa eta Euskal Autonomi Elkarteko Gazteriaren kontseiluak federazioaren bidea hartzea erabaki zuten joan den larunbatean Garesen egindako batzarrean. Horren ondorioz, eta bi kontseiluek autonomia izango badute ere, talde iraunkorra osatuko dute, bi erakundeen partaidetzarekin. Helburuen artean, Ipar Euskal Herriko gazte erakundeekin harremanei ekitea.

Garesen bildutako hogeitamar ordezkariak —15 kontseilu baikoitzetik—, Jaime Iribarren Nafarroako Kontseiluko presidentea izendatu zuten Euskal Herriko kontseiluko presidente, eta berarekin batera, presidenteordea —EAEko presidentea—, idazkaria eta kutxazaina ere aukeratu zuten.

Honen azpian Batzorde Federala osatu zen, bi kontseiluen talde iraunkorrek osatuta, eta bere bilerak hiru hilabeteko egingo zirela erabaki zen. Hau izango da Euskal Herriko Federazioaren benetako bultzatzaileak, hortik zehaztuko bait dira elkarlanerako bideak eta helburuak. Behean, Batzorde Nagusia, 30 ordezkariak osatuta.

Erabakia hau prozesu luze baten ondorio bezala aurkeztu zuten bi kontseilutako ordezkariak. Horrela, 1987an Nafarroako Gazteriaren Kontseilua sortu zenean, lehendabiziko harremanak izan ziren EAEkoarekin, honek zenbait urte eginak bait zituen aurretik.

Honen ondorioz, EAEko kontseiluak martxan paratu zuten kontzientzi eragozpenei buruzko kanpainarekin bat egin zuten Nafarroakoak. Geroago 'Ekekei' aldizkaria sortzeko ideia gorpuztu zuten bi kontseiluek, eta harremanak gero eta sendoagoak egin ziren.

Horrela, bi erakundeek elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten iaz, lehendabiziz presidentek, eta ondoren batzorde orokorrek, ia aho batez, «kontutan hartuz bi kontseiluetako gazteriek arazo beretsuak zituztela, eta soluzionatzeko bideak ere antzekoak zirela». Gogoratu behar hemen orduan Nafarroan sortu zen zalaparta, UPNko gazteriek hitzarmen hau salatu zutenean.

Bide honen azken urratsa bi kontseiluak federatzea izan zen, Garesen



Fermin Iribarren, Euskal Herriko Gazte Kontseiluko presidentea.

JOXE

sinatu berri dena, alegia.

Kontseilu berri honek, beraz, Nafarroa eta EAEko kontseiluek osatzen dute, baina hauek dituzten irizpideak eta aurrekontuak autonomoak izango dira, oraindik. Helburu nagusien artean euskara eta euskal kulturaren garapena bultzatzea izango du. Fermin Iribarren presidentea adierazi zuenez, «hau izan da federazio hau sortzeko arrazoirik nagusienetakoa». Honekin batera, gazteen asoziazionismoa bultzatuko da, eta Natura, ingurugiroa eta gazteen eskubideen defentsa aldarrikatuko du kontseiluak.

Ohiko adierazpenetaz aparte, baina, ez dago helburu zehatzak zehaztuta, «hasi berriak ez bait ditugu ekintza handiak antolatu nahi izan».

Horrela, elkarlana bi kontseiluek dagoeneko martxan duten zenbait ekintzetara mugatuko da, eta lehendabiziz, kontzientzi eragozpenarekin. Halaber, biolentziari buruzko txosten bat prestatzen ari da EAEko kontseilua, honen aurrean irizpide bateratua osatzeko, eta Ipar Euskal Herriko gazteekin harreman estuagoak izateko bideak aztertzeko asmoa badu kontseilu berri honek.

mintzoak

Euskal Herriko mendiak

● Artikuluaren jatorria Bertso-larien Egun urrun hartan jarri liteke. Betikoaz aritzea dugu maite. Oso klasikoak gara, izan ere. Betikoaz aritzeak bere arriskuak ditu, hala ere; demagun eskola luzeko margolari-gaiari bodegoiaren ariketa egin beharrrak sor erazi liezaiokeen jarrerarekin helden diogula gaiari. Edo eta Mendaurrera hamaikagarren aldiz igotzen denarenarekin.

Zubiaur jaunari txistu batzu jo izanak kalaka amaigabearen kutxa ireki du. Urte luzeetan euskarak gizartean eduki dezakeen oihartzun mendrenik ere ezabatzen saiatu, Victoria Eugeniara joan, gaztelaraz hasi eta jendea txistuka. Eskergaitzokoa, jendea. Probokatua edo, nonbait. Hain dira erraz iruditu gaiztoan jartzen, fidakaitz halakoak. Baina kontu hau kotea Urkiagako lepoan utzi eta Enekorriara joanetorria egitea bezalakoa da. Ez du merezi. Behin Urkiagan egonda hobe da Enekorri ez ezik Okoro eta Argintzora ere joatea, eta baita Albaraino ere, denbora eta gogoia izan ezker. Joan egin gara, jakina.

Egia baldin bada Historiak epaituko gaituzelakoa, gurekin ez du lan nekeza falta izango. Ez 1975 urtetik

urte olinpiko honetarako epean behintzat. Aurrerakoan ere Historiak nahikoa egin behar izango duela iruditzen zait, eta ez bakarrik gu naparrok epaitzen. Asper asper eginda utziko dugu Historia, segurutik. Horregatik, gaurkoz bederen utz dezagun pakean andre hori, eta segi dezagun gurearekin, hots, Euskal Herriko mendiak.

Mendigoizalatasunaren ezaugarriak aldatzen ari zaizkigu urterik urte. Egun bada mendi bakarrarekin konformatzen ez, eta martxa berean Aizkorri, Anboto eta Gorbea lotu nahi dituenik. Bada bertako mendiak txikiak direlakoan gogoak Nepalera bidaltzen duenik, edo Akonkaguara. Urepel eta Mandoegi behatoki aparta bilakatu dira ekologiaren arduratuta daudenentzat.

Urbasa ederra da familiarekin pasatzera joateko. Aralar mendi sakratua da, lehen euskal gizakiaren bizilekuetako bat. Gipuzkoa eta Nafarroako hainbat bailara korapilatu eta halako berezko komunitatea sor erazten duena. Ardi-gazta oso ona, gainera. Ori kasko bakartiaren inguruan sai erre harroen hegada ixilak haitz arteko zuloetan izkututzen dira, bere leinu zaharren sekretua ezerezaren harlausaz betirako gorde nahiko ba-

lute bezala. Aukera franko, bistan denez.

Badira, izan ere, Hiru Errege Mahaiara Independentziari Bai aldarrikatzen joandakoak, Euskal Herriko mendirik altuena delakoan. Okertuta leudeke, baldin eta sona handiko kazetari batek ETBn esandakoaren arabera Euskal Herriko mendirik altuena Aizkorri balitz.

Zera esan nahi dut, une hau erantzunkizunen banaketa egiteko baino jendaurrea abertzale agertzen diren indar politikoen estrategiak zeintzu diren argitzeko interesgarriagoa iruditzen zaidala. Benetako estrategiak, prentsarako aldarrikapen eta proklama sutsuetatik harantzago. Zertan dauden batzuen eta besteen asmotan, baldin eta estrategiarik badago, edo eta gure proiektu zaharra frigorifikoan sartu, ganbaran gorde, saldu, ahaztu edo berritu ote dugun. Gainerakoan ezer ez, gauzak zertan dauden badakit eta.

Lasai, Historia, ez zaitugu INEMera bidaliko.



Gazteendako Zokoa

Okil handia

Dendrocopos major

Gorri bizi bizia buruan
Ugaria Nafarroan
Buztana sendoa du



Zuhaitzen zulatzailea

Familia honetako txori guztietan nabarmentzekoa da zuhaitzen azaletan igo eta ibiltzeko duten ohitura. Okil handiaren kasuan, hatzamarren kopena, bi aurrera begira eta beste biak atzera, bakoitza azkazal sendo batekin, sendotasun hau are nabarmenago egiten da. Gainera, eta duen buztana gogorriaren esker, eusteko hirugarren leku bat dauka, efikaza oso.

Bere mokoarekin danborra antzeko doinua ateratzen du zuhaitzetatik, eta hori egitearekin batera, enborrean dauden intsektu franko jaten ditu. Horretarako mingainaz baliatzen da, luzea eta itsaskorra.

Behin zuhaitzaren puntan, berriro jaisten da hegan, berriro ere ekintza bera egiteko. Egiten dituen zuloetatik bat aukeratzen du txofrakirako, eta behin handituta, ezpalak eta txotxamarrak paratzen ditu bertan, ero-soagoa izan dadin.

Arra goikaldean beltza da, eta buruaren atzekalde eta behealdean gorri bizi bizia. Emeez ez dute buruko zolda gorria. Nafarroan oso ugaria da, eta mota guztietako ohianetan bizi da, 500 eta 1.600 metro altuera bitartean. Hegazti sedentarioa da, eta soilik negu gorrietan alde egiten du Europako iparraldetik.

ANDER GASTON

Mendi hauetaz bestaldean, eguzkia ateratzen den lekuan, izugarriko basoa dago. Oso zabala da, eta inoiz ez da hango zuhaitz bat moztu. Ez da besteak bezalakoa, han dagoen guztia sorginduta bait dago, babestuta, han bizi diren izakiei esker.

Gutxik lortu dute handik itzultzen, sorgingeriak hautsiz gehienak galdu eta han hil edo betirako gelditu dira eta. Esaten dutenez, kanpoko itxura lasaia dauka eta ezin dira berak baruan dituen arriskuak ikusi.

Han dagoen guztia berezia eta arraroa da baina batez ere zuhaitzak. Leku guztietakoak dira, eta baita ere han bakar bakarrik daudenak ere. Luzeak edo txikiak, zuzenak edo okertuak, zabalak edo meheak, baina denak ibiltariari traba egiteko prest modu batera edo bestera.

Ez dira bakarrik handik sartzen dena harrapatzearekin konformatzen, jendearen diruzalekeriaz baliatzen bait dira basoan itxurazko altxorak gordetuz.

Haietakoak zilarrezko pagoak dira, zuhaitz hauen hostoak zilarrezkoak dira, eta urtero bere azpian pilatzen joaten dira.

Jendea bizitza arriskuan jarriz haien bila joaten da, eta bertan gelditu ere, lortzen dutenek alferrik dute, zeren basoko itzaletatik atera bezain laster betiko pago hosto bihurtzen bait dira zilarrezko altxorak.

Badira ere ibai edo intziren ondoan bizi diren sahas itoazleak. Izenak argi eta garbi uzten du bien enborrekin harrapakina itotzen dutela, barrutik hutsik bait daude.

Zuhaitz hauek leku lasaieran daudenez, uraren ondoan, ibiltariak konfidantza dute beraien itzaletan etzateko, eta adarretik abesti bezalakoa bat egiten dute pertsona lokartaraziz.

Lehen esan dut zer gertatzen zaien han gelditzen direnei. Hau bezalakoa asko daude baina beldurgarriak Ukornoak dira. Zuhaitz hauek mugitzeko ahalmena dute eta edozein momentutan basoko ingurua basoaren zati berri bihurtu dezakete. Horrela, hango guztiak bertan galtzen dira.

Dena den, bada jendea basoaren barkamena ere lortu duena eta han betirako zoriona lortu duena.

Mendi hauetaz bestaldean



ANDER GASTON

Negu-egun bat

IÑIGO ITOIZ

Galduta zaude eta usain hezea, hozturiko sudurzulo bietatik sartzen zaizu arnas hartzen utzi gabe. Bi zapal hots entzuten dituzu. Laino tartean gizon baten forma desberdintzen da. Ez oso altua. Bere piparen su gorria itzaltzen hasten da lainoaren hezetanaren ondorioz.

Pauso bat ematen du zurenganatz. Bere sorbaldak sostengatzen duen zakua alde batera mugitzen da pisuaren ondorioz. Bigarren urratsa ematen du eta, segidan, beste bat. Bapatean besotik hartu eta begipean geratzen zaizun laino hezetsuaren barnean sutzar baten hondora eramaten zaitu. Zakua lurrean uzten

du. Bere barnetik eskukada diru eta diamante ateratzen du. Hargiaren disdirarekin altxor mordo hark disdira ikusgarriak egiten ditu. Eskua hartu eta eskukada diamante eskura ematen dizu. Begiratzen dituzu liluraturik sortutako disdiraren ondorioz eta eskerrak ematera zoazenean... ez dago.

KAZKARROAN

Estropadan

Estropada bereko partaideak, Patxik bere alde egin du apostua eta Ramonek beste traineruaren alde. Itsason daude eta Ramonek ez du arraunik egiten. Patxik hasita.

Arraunlari moduan
makina bat urte
ibili gara biok
gau, egun ta aste
holakoa zinanik
nik ez nuen 'uste
kirola saldu duzu
diruaren truke

Kirola saldu eta
ez nago penetan
hara nola gabiltzan
izerdi patsetan
sentitzen det zugatik
laguna benetan
askotan gertatzen da
hau estropadetan

Lagun batera al da
zure portaera
urte osoko lana
ordu batez fuera
zure alokeriak
guztion galera
neregatik zoazke
popatik hartzera

Nere filosofiak
badu nahiko grazi
hemen irabazleak
ez baitu merezi
lan guztxiago egin
eta ondo bizi
estropada galdu ta
xoxak irabazi

Arbizuako bertso eskola

Zaharrak berri

Oloa irabazi, eta kapona galdu.
Erosketa edo trukada txarra egite-
rakoan.

Arbizu

Esker mille! Behar zeralarik, zato
nere bille.

Zerbait eskatuta eman ez denean
esanda.

Aezkoa

—Zergatik ez diek arrainei ura aldatu?

—Ez al dun ikusi oraindik ez dutela dena edan ala?

TXALAPARTA

Gure liburuak



TXALAPARTA

78 Postakutxa Tfn.: (948) 70.32.77 TAFALLA

Bizi Bizian

Asteburu honetan Nafarroako zoko guztietan aterako dira kalera mozturro eta jantzi ezktutukoak, aurpegi ezegunak, ohitura zahar eta berriekin

nahastutako irudi eta pertsonaiak. Eguneroko trazak ahaztuko dira zoramenean eta farran murgiltzeko, eta goitik behera aldatzeko. Herri guztietan izanen dira txarangak,

trikitixak, gaiteroak, dantzak, parodiak, olga eta kazkarroa. Ez daude denak, baina Nafarroan aurki daitekenaren adibide baliogarria izan daiteke. Izan ere, ihauteriak bait dira.

Herriz herri mozturroturik

MATTIN KAPITANSORO / IRUNEA

Iparraldean, oilar jokuak, iñudeak, zakuzaharrak eta artzaiak dira protagonistak ihauterian, behin ihoaldunen abarrotsak desagertu ondoren. Horrela, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako herri frankotan atzo ostegunez hasi ziren ihauteriak, orakundea ospatzean.

Orakundea behialan Euskal Herria osoan ospatzen zenaren hondarrekoa da, orduan, eta hiru ostegun jarraian, hiru festa ospatzen bait ziren: emakunde, emakumeendako, gizakunde, gizonezkoendako, eta orakunde, umeak eta, oro har denendako eguna.


Baztanen, izen ezberdinak zituen egunak, eta Erratzun, kasu, 'Ollardantza' deitzen diote, Arizkunen, 'Egun ttuntun', eta gainontzekoetan Orakunde. Eguna umeendako dago erabat egina, eta oilarra da nagusia. Begiak estalirik makilkadaz harapatzen saiatzen dira gazteak, eta harapatzen duenari saria ematen zaio. Elizondon, astelehen —haurrendako desfilearekin— eta asteartean izanen da besta handiena.

Beran, pasa den larunbatean hasi ziren ihauteriak, kaldereroen konpartsekin, baina heldu den igandean izanen da egunik handiena. Iñude eta artzaiak kalez kalé arituko dira goizeko hamarretatik aintzinera, eta arratsaldean kontzertua dago iragarrita Alzate plazan, 'Joxelu Anaiak' taldearekin. Astelehenean, mozturroen ibilaldia izanen da.

Lesakan, larunbatean ikusiko dira lehendabiziko mozturroak eta astearte arte izanen da besta giroa. Igandean, zakuzarrek ohizko ibilaldia egingen dute herrian zehar, frontoian jantzi eta plaza zaharrean amaitu arte. Astelehenean, karrozen desfilea izanen da eguerdian, eta asteartean, baserriarren egunean, goitarrak eta fraindarrak ibiliko dira baserri baxerri. Atzo, ortzegunez, etxez etxe arraultzak eske ibili ziren gazteak.

Araitz ibarran, eta gaur egun galdurik badaude ere, ioteak kandelariak ospatzen ziren. Meza nagusi ondoreko uzten zuten bertan antzarre jokua. Jostaldi honetaz gainera, otsailaren lehengoan, baserrietako eske batzea egiten zuten txistulariekin, eta gero, otordua bileran, dirutan nahiz puxkatan bildutakoaren kontua egiteko. Jantzera lepoko zapi gorria, eta kitto.

Goizueta igandean hasiko dira ihauteriak, koadrilek antolatuta. Igande arratsaldez, eskolako mutikoez dantzatzeko dute zagi dantza, eta ilunabarrean trikitixa izanen da. Astelehen goizean baserriara joanen dira bi koadriletan banatuta, eta alkandora eta praka txuriz, eta zapi eta txapela gorritz. Arratsaldez festa plazan. Asteartean, herrian zehar aritu-



ko dira, eta bazkaldu ondoren, zagi dantza izanen da herri guztian zehar.

SAKANAN NARRU ETA SARDEAK

Sakanan ere, urteren poderioz ihauterri gehienak galdu ziren, eta soilik Urdiain eta Unanuan mantendu ziren. Altsasun, baina, duela hamar urte berreskuratu ziren, eta aurtengoak izango dira Olaztikoen lehendabizikoak galdu zirenetik. Denen ezaugarria, narrua, eta sarda, makila edo dena delakoa, zirikatzen eta beldurtzeko.

Altsasun, astearte izango da egunik nagusia, orduan aterako bait dira momotxorroak, narru, sarde, ipuruko eta jauzkitxoarekin. Haiekin batera, sorginak, juantranposoak, eta akerra. Aurrerago puxken biltze egi-

na izango zen, aurtun berreskuratu den ohitura, alegia.

Olaztin, bihar larunbata egingo dute festa eguna. Zamar txiki eta handiak, neskak, auntsainak, behiak, eta abarrak arratsaldean aterako dira udaleko ordezkariak lagunduta, eta herri osoan zehar arituko dira beren sarde eta erratzekin.

Arbizun iyotien hasiera bi panpinen arteko antzerkiarekin egiten zen. Aittun handia eta amiña txikia deituak, gizonezko eta emakumezkoen ordezkariak ziren. Lehendabizikoa txapela, alkandora marraduna eta galtza urdina zeraman, larruzko gerriko batez loturik. Amiña txikiak txanbra eta gona jazten zituen. Buberuban zapia, eta anketan espartin beltzak. Jaiak igandez egiten ziren,

eta orduan mozturrotuak eta aurpegi estaliak ateratzen ziren. Igande arratsaldez aittun handia eta amiña txikia erretzen zuten.

Lantzeko ihauteri ezagunak astelehen eta astearte honetan izanen du segida, urtero bezala. Miel Otxin pertsonai nagusia, gazteek eramanen dute sorbaldan, eta ondotik Ziripot ibiliko da, baldar eta trakets, Zaldikok jo eta lurrera botatzen duen baikoitzean. Txatxoak, bitartean babesten saiatuko dira, eta behin eta berriro altxatu egingen dute. Miel Otxini —behialako lapurra eta gaizkilea— epaiketa eta erre ondoren, doinu ederki ezaguna adituko da berriro plazan, txatxoek errautsen inguruan dantzatzen duten bitartean.

Luzaiden ere, igandea izanen da

egun nagusia, azeri bestarekin. Gorrak, bandelariak, azeria, maskak, etxez etxe arituko dira Luzaiden bertan eta Pekotxeta, Gaiñdola, Gañekoleta eta Ondarrola auzoetan. Goizeko Atxetatupinean maskak azeri harapatzen saiatuko dira, Jaun eta Anderek babesten duten bitartean. Azkenean, eta bildutakoarekin, afaria egingen da.

IRUNERRIAN PERTSONAI HISTORIKOAK

Iruñerrian, bestalde, pertsonai historikoak izanen dira protagonistak bertako ihauterietan. Iruñean, horrela, auzo ezberdinetan izanen da festa, baina bereziki Parte Zaharrean eta Donibanen. Parte Zaharrean, atzo paratu zuten Mari Trapu panpina Navarrerria plazan, eta gaur gaiteroak arituko dira kalez kale. Mari Trapu Antso Azkarren garaiko pertsonaia da, eta asteartean arratsaldeko zortzietan erreko dute Navarrerrian.

Donibanen, larunbatean diru eta ardoa eske ibiliko dira auzoko denda eta tabernatik, eta arratsaldeko zazpi t'erdietan hasiera emanen diote kalejirari. Erraldoiak, momotxorroak, txatxoak, ziripotak, jentilak, errementeriak, sorginak, zezengorriak, basurdeak, ahariak eta abar, txaranga eta gaiteroek lagunduta.

Berriozarren, larunbata izanen da egun handia, Txolinen konpartsarekin. Pertsonai hau pasa den mendekoa da, frantziarren aurka altxatu zen Espoz y Mina generalaren laguntzailea, alegia. Frantziarrek jarritako Nafarroako Gobernadoreak bando bat atera zuen orduan, euskaraz zein erderaz, gaizkile bezala tratatuz.

Noainen Mielutxi izanen da pertsonaia, Zizur Nagusin Tartalaoa, Antsoainen Ezkabatziki, Atarrabian Atarrabi eta Miquelats. Denetan, kalejira, txaranga, eta, azkenean panpina errtzera.

Hegoaldean, Erriberri larunbatean ospatuko dira aurtun berreskuratu diren ihauteri zaharrak. Karatuloak, peleleak, mozturroak, larunbateko arratsaldeko lauetatik aurrera aterako dira kalera, eta sei t'erdietarako dago iragarrita prestatu duten pregoi bereziaren irakurketa. Ondoren, erronda egingo da herrian zehar.

Lizarran Aldabika eta palokiak aterako dira kalera berriro ere, Lizarra ikastolak egin duen lanari esker. Aldabika joan den mendeko azken laurdenean bizi zen lapurra da, ikulu batean gau hotz batean hil zena. Palokiak, soldaduskara zio hazenen antzinako mozturroa zen, eta haiek lagunduz, beste toki askotako pertsonaiak aterako dira larunbateko eguerdian ikastolatik. Los Llanosen amaitzeko. Ondoren, Aldabikaren historiaren antzespina egingen da Los Llanosen bertan, eguerdiko ordubatean.

Mikel Saralegi.....harrijasotzailea

«Gogorra izanen da Perurena ez haustea»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

EGUNKARIA.— Harria lehendabiziko saioan jaso zenuen. Bigarrenean ezinean eta, gainera, harria lurrera. Espero zenuen estraineko saialdian jasotzea?

MIKEL SARALEGI.— Bai, lehendabizikoan jasotzea normala izan zen, batez ere entrenamenduetan nola ibilia nintzen ikusita. Bigarrenan, gaizki ateratu zen, baina tira...

EGUNKARIA.— Baina zure asmoa bi aldiz jasotzea al zen?

SARALEGI.— Bai, bai, hala da. Prest nongoen horretarako. Baina botea gaizki eman nion, gerrian ematera koan, eta mugitu zitzaidan. Harria bere tokitik ateratzen denean, akabo. Pena izan zen, aritzen zara bolada handi bat horrelako gauzak prestatzen, eta gero, ez zaizunean dena ongi ateratzen, pena hartzen duzu. Hala ere, pozik nago, marka eginda dago, eta gure helburua hori zen.

EGUNKARIA.— Marka jarrita, jende guztiak konparazioak egiten ditu Perurena eta Saralegiren artean. Zer moduz hartzen dituzu horrelako komentarioak?

SARALEGI.— Nahiago nuke nere markaz hitzegitea konparazioak egitea baino, baino denek konparatzen dute, eta ez dago erremediorik.

EGUNKARIA.— Baina zuek ere burua horretan daukazu, Perurenaren marka gainditu behar duzula ezta?

SARALEGI.— Bai, ni saiatuko naiz marka hori gainditzeko. Zaila izanen da hori harrapatzea, baina posibilitateak badaude, eta saiatuko gara.

EGUNKARIA.— Eta ez al daiteke hori nolabait oztupo bat izan, jendearen presioa dela eta?

SARALEGI.— Bai, baina oraindino edadearen araberako bastante ongi daramazkigu markak, eta nik uste dut horrela segitzekotan hautsi daitekeela. Ez badugu hausten gogorra izango da, bai, baina kirol guztietan gertatzen da, desilusio handiak izan

ten direla. Orain gora segituko dugu. Lehendabiziko helmuga hirurehun kilokoa zen, eta bigarrena Perurenaren errekorra izanen da, hirurehun eta hamabost kilo. Hortik gora, ahal den arte, baina askoz gorago ez gara joango...

EGUNKARIA.— Zu hasi zinen Perurenarekin batera, Leitzan, bere itzalpean, nolabait esateko, eta bere bideari ere jarraitu diozu. Beste harrijasotzaile batzuk beste errekorretan aritu dira, harri txikiagorekin eta. Bide hau zergatik hartu duzu, zure gorputza horretarako egokia delako?

SARALEGI.— Bai, asko, gorputza horretarako egokia dudalako, baina harri txikiarekin ere aritu gara markak egiten eta.

EGUNKARIA.— Harriaren munduan beti errekorrekin eta ibiltzen zarete, eta hortik kanpo ematen du ez dagoela deus. Ez al dago gauzak beste era batera antolatzeak aukerarik?

SARALEGI.— Beste kirol guztietan ere konpetizioak izaten dira. Honekin horrela enfokatu dute... Perurenak ere horrela enfokatu du. Esan dezagun bera jauntxo bezala izan dela, eta berak esan zuen apostuak txarrak zirela eta zikinak zirela. Nik uste dut apostuak ez direla zikinak, eta gainera, beste gainerako jende askok hor izan dezake aukera. Harria gusatzatzen bazaizu, baina marka ez bada ailegatzeko, ez dago deus egiterik. Bitartean, izan daiteke, futboleko bezala, maila desberdinak. Eta horien artean, harriarekin segitzeko modua izan daiteke apostua.

EGUNKARIA.— Eta badago jendea horretan aritzeko, maila polita emateko?

SARALEGI.— Nafarroako txapelketan hiru harrijasotzaile apuntatu ziren. Bat edadetu zen, bestea nere anaia zen, eta hirugarren bat. Teknika aldetik, nere anaia pixka bat bazuen, baina besteek ez. Oso maila eskasa eta txarra dago. Oso giro gutxi dago.

Mikel Saralegik hirurehun kiloko harria jaso zuen joan den igandean Leitzako Amazabal pilotalekuan. 24 urtekin, Iñaki Perurena herrikidearen markak gainditzeko ari da pausuz pausu Migeltxo, eta hurrengo helburua hirurehun eta hama-

bost kilo horiek dira, munduko marka, alegia. Ez dauka presarik, baina asko eta asko gaintutuko duelakoan daude, eta Perurena errekor gehiagotan arituko ez dela behin iragarrita, bera da alternatiba bakarra. Beso sendoak ditu, hori bai, horretarako.



12 urterekin hasi eta 18 zituenarako gimnasioan sartu zen Mikel Saralegi.

Perurenak errekorretarako enfokatu du kirol hau. Esan dezagun bera jauntxo izan dela, eta berak esan zuen apostuak txarrak eta zikinak zirela. Nik uste dut apostuak ez direla zikinak eta beste gainerako harrijasotzaile askok hor izan dezake aukera».

EGUNKARIA.— Nafarroako Herri Kirol Federazioak planteatu nahi dituen liga antzekoa aterabide izan al daiteke?

SARALEGI.— Bai, izan ditekete jende berria ateratzeko bidea. Aizkoarekin hasi dira, eta harrian ez zuten atera

bat bera ere ez zegoelako. Orduan, lehendabizi jendea atera nahi dute, baina laister sartuko dute txapelketetan.

EGUNKARIA.— Harrian aritzeko jende bila herri batera joan behar bazenu, nola salduko zenuke produktua?

SARALEGI.— Ez dakit, nahiko zaila da. Denek pentsatzen dute harriarekin ibilita bizkar hezurarekin gaizki arituko zirela, eta berrogei urtera ailegatzekoan makilarekin ibili behar dela. Hori ez da horrela. Orain dela hamabost egun medikuarekin ibili naiz, abduktoreak gaizki nituela eta, eta bizkarreko plaka batzuk erakutsi nizkion, aurretik egindakoak. Berarenak ere erakutsi zizkidan, eta ez du behin ere indarrik egin, baina bizkar hezurra oso gaizki dauka, eta nik oso ongi. Ez du deus ikustekorik. Burutik atera behar dira topiko horiek. Ni oso gazte hasi nintzen, ha-

mabi urtekin, eta hemezortzirekin etorri nintzen gimnasioa. Ongi planteatuz gero, ez dago arazorik.

EGUNKARIA.— Epeak paratu al dituzue marka berri baterako, noiz, zenbat...?

SARALEGI.— Ez, hori egiten da entrenamenduak ikusita, hemen jasotzen diren kiloak ikusita. Bost-sei kilo igotzen bada, normalena da harrian ere hiru bat-lau jasotzea.

EGUNKARIA.— Eta zein izan daiteke zure markarik altuena?

ELOSEGI.— Hori esatea oso zaila da. Ongi izanez gero, urte asko gelditzen dira, beste bost-sei urte, eta horretan gora joan gaitezke, baina baita estankatu, horretan gelditu. Lehengo harrijasotzaileak ez ziren maila honetara ailegatu, eta Perurena ailegatu da, baina berak ez du inoiz presiorik izan. Behar bada, orain dela urte pare bat edo, lehengo urtean baino kilo gehiago jasoko zuen.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

